

2/2023 akta

**OSATEK, S.A. SOZIEKATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN AKTA,
2023KO UZTAILAREN 6KOA**

Presidenteak deituta, Administrazio Kontseilua eratu da Osatek, S.A.-ren egoitza sozialean (Urkixo zumarkalea 36, 5.a, 48011 Bilbao), 1. aretoan, beheko solairuan, 2023ko uztailearen 6ko 16:00etan. Hona hemen bertaratutakoak eta gai-zerrenda:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

José Luis Quintas Díez jauna

BATZORDEKIDEAK:

M^a Rosa Pérez Esquerdo andrea

Víctor Bustamante Madariaga jauna

Susana López Altuna, idazkari gisa

Honako hauek ezin etorria adierazi dute, eta botoa presidentearen esku utzi dute:

Hernando Lacalle Edeso jauna

Iñaki Arrizabalaga Ormaechea jauna

Fernando Aguirre de Miguel jauna

Josu Xabier Llano Hernaiz jauna, Osatek, S.A.-ko zuzendari-kudeatzailea, ere bertaratu da bilerara, hitzarekin baina botorik gabe.

GAI-ZERRENDIA:

- 1. Aurreko bileraren akta onestea, hala badagokio.**
- 2. Jarduera, itxaron-zerrendak eta eskariaren bilakaera 2023ko urtarriletik maiatzera.**
- 3. 2023ko inbertsioak eta ekipoak.**
- 4. Lanpostuak finkatzeko prozesua.**
- 5. Lan-erreformak kontratazioan duen eragina.**
- 6. AUOko ekipoaren beharrak.**
- 7. Galde-eskeak.**

Jarraian, OSATEKeko zuzendari kudeatzaile Josu Xabier Llano jaunak hartu du hitza, eta gai-zerrendako puntuei heldu die:

1. Aurreko bilkuraren akta onestea, hala badagokio.

Aurreko bilkurako akta irakurri ondoren, aho batez onartu da.

2. Jarduera, itxaron-zerrendak eta eskariaren bilakaera 2023ko urtarriletik maiatzera.

2023ko maiatzaren 31ra arte egindako jarduerari buruzko datu garrantzitsuenak azaltzen dira.

Urteko lehen aldi honetan % 6,71 paziente gehiago artatu dira aurreko urteko aldi beraren aldean, guztira 59.845 paziente. Jarduera-hazkunde nabarmenenak Gipuzkoan eta Bizkaian gertatu dira. Egindako miaketen kopuruak joera berari jarraitzen dio, % 6,36ko hazkundearekin.

Produktibitate-hazkunde hori, batez ere, egindako txanda bakoitzeko miaketen ratioa hobetzearen ondorioz gertatu da, txanda bakoitzeko 16,46 esp. izatetik 17,61 esp. izatera igaro baita.

Lan egindako txanden kopurua pixka bat jaitsi da (-% 0,54) 2022ko aldi berarekin alderatuta.

Jarduerak gora egin duen arren, maiatzaren 31n itxaron-zerrenda aurreko urteko aldi berean baino % 17,18 handiagoa da, guztira 32.868 bolante metatuta. Lurrealdeka, egoera ona da Gipuzkoan, itxaron-zerrendako bolanteen kopurua nabarmen jaitsi baita. Bizkaian nabarmen egin du okerrera, 14.678 bolantereekin itxaron-zerrendan, eta Araban 7.624 bolantereekin itxarote-zerrendan.

Paziente ambulatorioen batez besteko atzerapena pixka bat hobetu da (-% 7,09) aurreko urtearekin alderatuta. OSATEKen zentro guztietan 53 egunekoa izan da batez beste, Eibarren 27,4 eguneko batez besteko atzerapenaren eta Txagorritxun 77,5 eguneko batez besteko atzerapenaren tartean.

3. 2023ko inbertsioak eta ekipoak.

Txagorritxuko ekipo berria lizitatzeko prozesua hasita dago, iraileko lehenengo astean amaituko dela eta esleipen-kontratua sinatuko dela kalkulatu da. Obrako lanetan eta ekipamendua instalatzeko lanetan eragozpenik sortzen ez bada, abenduaren bigarren hamabostaldian martxan jartzea aurreikusten da.

Abenduan, Amara Berriko EMko ekipo berrian ere hasiko da asistentzia-jarduera.

4. Lanpostuak finkatzeko prozesua.

Zuzendari kudeatzaileak OSATEKen plantilla finkatzeko prozesuen egoera azaldu du. Lehiaketa bidez egindako hiru prozesu (ofizial administraria, administraria, erradiologoa, teknikari manipulatzailea) ia amaituta daude, behin betiko zerrendak argitaratuta eta errekurtso-aldian. Idazkari eta laguntzaile kategoriak datozen asteetan ebatziko dira. Lehiaketa/oposizio bidez egindako prozesuei dagokienez, Administrazio Ofizialaren, Kalitateko Teknikariaren eta Hizkuntza-normalizazioko Teknikariaren kategorietako hautagaiak aurkezteko deialdiak itxi dira. Irailean, erradiologoarentzako, teknikari manipulatzailearentzako, idazkariarentzako eta laguntzailearentzako deialdiak ireki ziren.

5. Lan-erreformak kontratazioan duen eragina.

Zuzendari kudeatzaileak lan-erreformak eta kontratu-modalitate berrien aplikazioak OSATEKen duten eragina azaldu du.

Abenduaren 28ko 32/2021 Legegintzako Errege Dekretua onartzeak bi modalitatetara mugatzen du aldi baterako kontratazioa, inguruabar oso zehatzei erreparatuta (lanpostua erreserbatuta duten ordezkapenak eta ekoizpenaren inguruabarrak edo aurreikusi ezin diren beharrak).

Araudi berriaren ondorioz, nahitaez aldatu behar dira giza baliabideen antolamendua eta txandak esleitzeko irizpideak.

Horrek guztiak zailtasunak eragiten ditu aurreikusitako jardueraren estalduran (txanden itxiera), eta beharrezkoa da lan-karteldegien egungo plangintza eta prestaketa aldatzea.

6. AUOko ekipoaren beharrak.

OSATEKen Administrazio Kontseiluak, 2022ko urriaren 26ko bileran, Txagorritxuko Ospitalean 3 Tesladun EM ekipo berri bat instalatzea onartu zuen. Ekipo berri horretarako langile-beharrei heltzeko, zuzendari kudeatzaileak hasierako proposamen bat aurkeztu zuen 2023ko martxoaren 30eko bileran. Kontseiluak, une horretan, egokitzat jo zuen gaia hurrengo bileretan eztabaidatzeko uztea.

Bilera honetan, berriz ere, zuzendari kudeatzaileak azaldu du zer langile behar diren taldea modu egonkorrean irekitzeko astelehenetik ostiralera, goizeko eta arratsaldeko txandetan. Txanda bakoitzeko lantaldea 4 pertsonak osatuko lukete: erradiologoak, teknikariak, laguntzaileak eta idazkariak. Gainera, hirugarren erradiologo batek ere parte hartu beharko luke, sortutako miaketa guztien berri emateko. Konfigurazio horrek produktibitatea optimizatzea ahalbidetuko luke, eta zuzenean eragingo lioke zerbitzuaren kalitateari.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, beharrezkotzat jotzen da ekipo berria langilez hornitzea, eta gerenteari adieraztea Jaurlaritzako Zuzendaritza eta Sailekin (Funtzio Publikoa, Ogasuna) izapideak hasiko dituela plantilla handitzeko eskaerari eta balizko baimenari dagokienez, eskatutako plazak doitzuz: 2 idazkari, 2 laguntzaile, 2 teknikari eta 2 erradiodiagnostikoko espezialista.

Era berean, Kontseiluak zuzendari kudeatzaileari adierazi dio prozesu horren bilakaeraren berri eman beharko duela etorkizuneko bileretan.

7. Galde-eskeak.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, bilera 18:00etan amaitu da.



IDAZKARIA
Susana López Altuna



LEHENDAKARIA
José Luis Quintas Díez